

Agur hitzak

Askotarikoak dira zuen eginak, hitzetan nahiz ekintzetan, euskalgintzaren esparruan. Horiek eskertu nahi ditu Euskaltzaindiak, ekitaldi honekin, eta, bide batez, zuen presentzia baliatu, zor zaizuen ohorezko izate hori nabarmentzeko eta azpimarratzeko, gizartearen aurrean.

Gaurkoa zuei aitortza egiteko eguna dugu Euskaltzaindian. Aitortza egiteko, eta, esan dezadan bidenabar, geroari buruzko bultzada emateko ere bai, orain arteko bidetik jarrai dezazuen.

Euskal Herri osoa dago hemen ordezkatuta, zuen bitartez. Hartara, Euskaltzaindiak gogoratu nahi du herri hau hizkuntza eta kultura baten jabea dela, eta, zer esanik ez, guztiok garela hizkuntza eta kultura horien partaide eta eragile.

Eragile, horra hor hitza. Hori dut nik gustukoa. Hori duzue zuek ere gustukoa. Horixe erakutsi duzue, eragin handikoak zaretelako euskal kulturaren, eta eragin luzekoak nahi zaituztegelako, Euskaltzaindian eta euskal munduan.

Hori gogoratu nahi dugu, zuei zorionak eta eskerrak eman, eta gonbita luzatu, gaurkoa alboratu gabe, bihar-etzi ere gurekin batera euskararen eta euskal kulturaren alorrean eragile izaten jarrai dezazuen.

Azken aipamena Juanjo Zearretari zor diot. Hauxe da lehen ageriko bilkura, Euskaltzaindiaren egoitzan, bera gabe. Askotan saiatu zen bera, honelakoak egoki eta txukun joan zitezten. Gera bedi haren oroimena gure artean.

Mila esker,

Andres Urrutia
euskaltzainburua